

DONOSTIAKO UDALAREN ETA DONOSTIA SUSTAPENA SA SOZIETATEAREN ARTEKO HITZARMENA, AZKEN HORREK ERAKUNDE LAGUNTZAILE GISA JARDUN DEZAN **DONOSTIAKO AISIALDI- ETA TURISMO-SEKTOREAREN ENPRESA PROIEKTUAK DIGITALIZATZEKO LAGUNTZEN KUDEAKETAN**, DONOSTIAKO ESPERIENTZIA ENOGASTRONOMIKOEN INGURUAN DONOSTIAKO UDALAK DUEN HELMUGAKO JASANGARRITASUN TURISTIKOAREN PLANAREN ESPARRUAN (SUSPERTZE-, ERALDAKETA- ETA ERRESILIENTZIA-PLANA - PRTR).

Donostian, sinadura elektronikoaren datan.

BILDU DIRA

Alde batetik, Eneko Goia Laso jauna, 35775793-Y zenbakiko NANA duena, Donostiako Udaleko alkate-udalburu den aldetik, eta, bestetik, Iñigo Olaizola Arcaute jauna, 44158497-S NAN zenbakia duena, Donostia Sustapena SA Udal Erakunde Publikoko zuzendari kudeatzailea den aldetik.

PARTE HARTU DUTE

Eneko Goia Laso jaunak, Donostiako Udaleko alkate-udalburu den aldetik.

Iñigo Olaizola Arcaute jaunak (44158497-S), DONOSTIA SUSTAPENA SA (IFZ: A20001681) udal erakunde publikoaren izenean eta hura ordezkatzuz, erakunde horretako zuzendari kudeatzailea den aldetik, Guadalupe María Inmaculada Adanez García Donostiako notarioak (783 protokolo zenbakia duena eta Gipuzkoako Merkataritza Erregistroan inskribatuta dagoena: 2.528. liburukia, 0. liburua, 165. folioa, SS-4.857 orria eta 85. inskripzioa) 2022ko maiatzaren 4an haren alde baimendutako ahalordetze-eskritura publikoaren arabera.

ADIERAZI DUTE

Lehen.- Donostiako Udalak toki erakunde inbertsio jarduketan finantzaketan parte hartzea eskatu zuela, Europar Batasunaren Suspertze Tresnaren barruko Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. Osagaiaren 1. Inbertsioaren 2. azpineurriaren esparruan, COVID-19aren ondoriozko pandemiak eragindako krisi ekonomiko, sozial eta humanitarioaren ondoren susperraldia bultzatzeko.

Bigarren.- Donostiako Udalak dirulaguntza lortzeko egindako eskaeran, eta Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko laguntza emateari buruzko Ebazpenean, zeinak Turismoko Konferentzia Sektorialaren 2022ko abenduaren 14ko Erabakia argitaratzen baitu (erabaki horren bidez, banaketa irizpideak eta autonomia erkidegoetako banaketaren emaitzak ezartzen dira, toki erakundeek Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren 14. Osagaiaren 1. Inbertsioaren esparruan inbertsio jarduketak finantzatzera bideratutako kredituari dagokionez), bai eta EAEko Administrazio Orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez) eta Donostiako Udalaren artean Helmugako Jasangarritasun

Turistikoaren Planerako –**DONOSTIA, AISIALDI GASTRONOMIKO JASANGARRI ETA BERRITZAILEA**– egindako Hitzarmenean ere (aintzat hartuta jarduketa horiek Europar Batasunaren Next Generation EU programaren funtsek finantzatutako Turismo Enogastronomikoko 2022ko Plan Nazionalaren barruan daudela), Udalak 2.120.000 euroko zuzeneko dirulaguntza jaso zuen, hitzarmen horren 4. klausulan jasotako jarduerak finantzatzeko.

Hirugarrena.- Digitalizazioaren jardun-eremuari buruzko 3. ardatzaren (Trantsizio digitala) barruan, 4. jarduketak (Trantsizio digitala, turismo gastronomikoaren alde) jarduera hau barne hartzen du: Enpresei laguntzak ematea balio katea bultzatzeko proiektuetarako, 300.000 €-ko zuzkidura ekonomiko batekin, zeina osorik gauzatu nahi baita Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzen deialdiaren bidez.

Laugarrena.- Aipatutako esparruan, Donostiako Udalak laguntza eman nahi du eta martxan jarri nahi ditu Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzak, hirian sektoreak duen lehiakortasuna eta Estatuan eta nazioartean duen posizionamendua hobetzeko.

Bosgarrena.- Donostia Sustapena SA 1902ko azaroaren 17an eratu zen, eta % 100 udal kapitela duen sozietate instrumental bihurtu zen, 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, Toki-araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak bere 86.1 artikuluan xedatutakoaren babesean, Udalbatzaren 2002ko azaroaren 15eko erabakiaren bidez, eta, halaber, Donostiako Udalaren berezko baliabide pertsonifikatua da.

Seigarrena.- Donostia Sustapena SAK berezko nortasun juridikoa du eta, sozietatearen xedeari eta eginkizunei dagokienez, jarduteko gaitasun osoa du, sozietatearen estatutuen 3. artikuluaaren arabera.

Zazpigarrena.- Donostia Sustapena SA udal erakunde publikoaren xede soziala da *«Donostiako lurralde eremuko ekoizpen sistemaren eta enpleguaren garapena zuzenean eta zeharka bultzatzen lagunduko duten jarduera ekonomikoak eta sozialak sustatu, garatu eta indartzea, aberastasuna, jarduera ekonomikoa eta enplegua sortzen duten mota guztietako ekimenak bultzatuz»*, Sozietatearen Estatutuen 2.1 artikuluan jasotakoaren arabera.

Zortzigarrena.- Donostia Sustapena SA Udal Erakunde Publikoak, bere xede soziala betetzeko, bere kargura izango du *«sustapeneko, prestakuntzako, laguntzako, aholkularitzako eta baliabideak errazteko jarduerak, bai eta, oro har, hiriko jarduera ekonomikoarekin lotutako ekoizpen egitura eta giza baliabideak hobetzen laguntzen duten jarduera mota guztiak gauzatzeko zeregina»*, Sozietatearen Estatutuen 2.2 artikuluan jasotakoaren arabera.

Bederatzigarrena.- Donostiako Udalak ez ditu behar diren giza baliabideak eta baliabide materialak aipatutako programa behar bezala gauzatzeko eta, beraz, egokitzen jo da erakunde laguntzaile bat izendatzea, 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzkoak bere 12. artikuluan ezarritakoari jarraikiz. Artikulu horren 2. apartatua xedatzen denez, erakunde laguntzaile hartu ahal izango dira Administrazio Publikoen partaidetza osoa edo gehiengoa duten merkataritza sozietateak.

Hamargarrena.- Donostia Sustapena SAK dirulaguntzen eta laguntzen kudeaketan eta Europako funtsen kudeaketan esperientzia handia duten baliabideak ditu; gainera, bere xede

sozialaren ondorioz espezializazio maila handia du. Horregatik, erakunde egokia da Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzen deialdian laguntzaile gisa jarduteko.

Beraz, Donostiako Udalak hitzarmen bat sinatu nahi duenez Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzak kudeatzeko erakunde laguntzaile bat lortzeko, eta Donostia Sustapena SA udal sozietate publikoa erakunde horren erakunde instrumentala denez, hitzarmen hau formalizatu du, klausula hauen arabera:

KLAUSULAK

Lehenengoa.- Hitzarmenaren xedea eta araubide juridikoa

Hitzarmen honen xedea da Donostia Sustapena SA udal sozietate publikoaren baldintzak eta betebeharrak ezartzea, Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzak kudeatzeko prozedura izapidetzen erakunde laguntzaile gisa izango duen jardunerako.

Europar Batasunaren Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoak finantzatzen ditu Hitzarmen honen xede diren jarduerak (Kontseiluaren 2020/2094 EB Erregelamendua, 2020ko abenduaren 14koa), jasangarritasuna eta berrikuntza sustatuz bisitarientzako Donostiako Esperientzia Enogastronomiko bat sortzeko helburua duen Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planaren esparruan; horretarako, balio katearekin lankidetzan aritzeko plataforma bat sortuko da, Turismo Enogastronomikoaren 2022ko Plan Nazionalaren (Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana- PRTR) esperientzia hobetze aldera. Horiek kudeatzeko orduan, aintzat hartuko da araudi hau, ezertan eragotzi gabe dirulaguntzen eta hitzarmenen arloan oro har aplikatu beharreko araudia:

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamendua (EE), 2021eko otsailaren 12koa, Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena.
- 36/2020 Errege Lege Dekretua, abenduaren 30ekoa, Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana gauzatzeko premiazko neurriak onartzen dituena.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren kudeaketa sistema taxutzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, Estatuko, autonomia erkidegoko eta tokiko Sektore Publikoko Erakundeek eman beharreko informazioaren prozedura eta formatua ezartzen dituena, mugarrak eta helburuak eta Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana osatzen dutenen neurrien aurrekontua eta kontabilitatea betetzen direla egiaztatzeko.
- HFP/55/2023 Agindua, urtarrilaren 24koa, Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazkako arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa.
- 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen Lege Orokorren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Erregelamendua onartzen duena.
- Turismoko Estatu Idazkaritzaren 2022ko abenduaren 19ko Ebazpena, Turismoko Konferentzia Sektorialaren Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez,

jarduketan finantzatzera bideratutako kredituaren banaketa irizpideak eta autonomia erkidegoetako banaketaren emaitzak ezartzen dira.

- EAEko Administrazio Orokorraren (Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren bidez) eta Donostiako Udalaren artean Donostiako Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Planerako egindako Hitzarmena, Euskadiko Helmugako Jasangarritasun Turistikoaren Lurralde Planaren barruan.

Halaber, aplikatzekoak izango dira Donostiako Udalaren Iruzuraren aurkako Neurrien Plana, Tokiko Gobernu Batzarrak 2022ko martxoaren 15ean onartutako plan horretatik eratorritako betebeharrak eta Donostia Sustapenaren Administrazio Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onartutako Iruzuraren aurkako Neurrien Plana.

Era berean, erakunde onuradunek nahitaez bete beharko dituzte laguntza eman duen administrazioak eta Estatuko eta Europako gainerako agintari eskudunek horretarako ezarritako arau guztiak, bai eta aipatutako finantzaketaren jatorriagatik laguntza horien onuradun izateagatik ezarritako betebeharrak guztiak ere.

"Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluan ezarritako betebeharrak dagokienez hitzarmen honetan aurreikusi ez den guztirako, dirulaguntzaren oinarri arautzaileetan ezarritakora jotzen dugu".

Bigarrena.- Baliabide ekonomikoak eta Donostia Sustapena SAri funtsak ematea.

Eraldaketa digitaleko (hardwarea eta softwarea), sektoreko prestakuntza espezializatuko, jabetza intelektualeko eta patenteetako, produktu eta zerbitzu digitalen diseinuko gastuetarako eta proiektuaren marketineko eta komunikazioko gastuetarako laguntzen deialdiaren babesean ematen diren dirulaguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak HIRUREHUN MILA EUROKOAK (300.000,00 €) dira.

Donostia Sustapena SA sozietateak idatziz eskabidea egin ondoren transferituko du Udalak esleitutako kreditua.

Donostia Sustapena SA % 100eko udal kapitala duen sozietatea dela aintzat hartuta, ez zaio banku abalik edo inolako bermerik eskatuko erakunde laguntzaileari.

Onuradunen artean banatzeko jasotako funtsak ez dira, inola ere, Donostia Sustapena SAren ondarearenak izango.

Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, erakunde laguntzaileak egiten duen jarduerak ez du konpentsazio ekonomikorik izango.

Hirugarrena.- Erakunde laguntzailearen jarduketak

Donostia Sustapena SA sozietateak, erakunde laguntzaile gisa, Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 16. artikuluen arabera, eta Hitzarmen honi jarraikiz, Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzen deialdiaren

barruan sortzen diren eta programa horren kudeaketarekin zuzenean lotuta dauden ekintza guztiak gauzatuko ditu.

Ildo horretan, Donostia Sustapena SAK erantzukizun hauek izango ditu:

- Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzen zehaztapenak eta baldintzak ezartzea eta abian jartzea.
- Laguntza emateko eskabideak izapidetu eta berrikustea;
- Ekonomiako eta Bertako Enplegurako Ordezkaritza zinegotzi ordezkariak sinatzeko jaso dituen eskabideen laguntzak emateko ebazpen proposamena egitea, laguntzen deialdia arautzen duten oinarrietako betekizun guztiak betetzen direla egiaztatu ondoren.
- Laguntzaren zuzkidura ekonomikoa ordaintzea, laguntzen deialdia arautzen duten oinarrietan eta dirulaguntza emateko ebazpenean ezarritako arauen arabera.
- Deialdian sortutako dokumentazioa artxibatu eta zaintzea
- Jarduera oinarri arautzaileen arabera egin izanaren justifikazioa biltzea
- Hala badagokio, itzulketa prozeduren ebazpen proposamenak prestatzea, ondoren Garapen Ekonomiko eta Enpleguko zinegotzi ordezkariak sinatzeko
- Deialdiaren laguntzak eman eta justifikatzeko prozesua argitaratzea, Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

Donostia Sustapena SA sozietateak onartu beharko du Udalak laguntzen kudeaketari buruzko egiaztapenak egitea, bai eta kontroleko organo eskudunek finantza egiaztapeneko eta kontroleko edozein jarduketa egitea ere, eta horretarako eskatzen zaion informazio guztia emango du.

Oro har, eta iruzurra prebenitzeko ezarritako arauekin bat etorritik, onuradunak hautatzeko eta eskatutako betekizunak betetzen direla egiaztatze prozeduran parte hartzen duten guztiek xede horrekiko inplikazioa sendotuko dute interes gatazkarik ez sortzeko deklarazio baten bidez, eta konpromisoa hartuko dute hura eguneratuta mantentzeko, egoera jatorrizko deklarazioarekiko aldatzen bada, hala bada ezingo baitute prozeduran parte hartu. Era berean, eragiketa arduradunei dagokie interes gatazka izateko arriskuaren *ex ante* analisi prozedura bat abiaraztea, eskabideak urtarilaren 24ko HFP/55/2023 Aginduan (Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana egikaritzen duten prozeduretan interes gatazkako arriskuaren azterketa sistematikoari buruzkoa) ezarritakoaren arabera baloratu aurretik, MINERVA tresna informatikoaren bidez.

Laugarrena.- Udalaren jarduketak

Donostiako Udalak deialdia arautzen duten oinarriak onartuko ditu Dirulaguntzen Datu Base Nazionalaren bidez.

Bosgarrena.- Alderdien betebeharrak, 2021/241 Erregelamenduaren (EB) arabera

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko otsailaren 12ko 2021/241 EB Erregelamenduan (Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) ezarritakoaren arabera, bi alderdiek konpromiso hauek hartzen dituzte:

- *Not significant harm* printzipioa betetzea.
- *Tagging* berdeari eta digitalari ekarpena egitea, hala badagokio
- Onuradunen datuak erregistratzeko betebeharra betetzea eta, beraz, funtsen azken jasotzaile guztien datuak Administrazio Publikoen artean lagatzea onartzeko deklarazioak egitea.

- Europako organismoen kontrolaren mende egotea, eta konpromisoa hartzea erakunde horiek beren eskumenak gauzatzeko behar dituzten sarbideak emateko.
- Dokumentuak gordetzea, Finantza Erregelamenduaren 132. artikulua arabera.
- Erakunde laguntzaileak ere ziurtatu beharko du Hitzarmen honen sinatzaileen iruzurra, ustelkeria eta interes gatazkako arriskuak murrizteko neurriak hartuko direla, I. Eranskineko ereduaren arabera. Horretarako, aipatutako HFP/55/2023 Aginduan ezarritako tresna informatikoa eta prozedura erabiliko dituzte.

Komunikazioaren eta publizitatearen arloan, alderdiek betebeharrak izan beharko dituzte kontuan:

- Suspertze eta Erresilientzia Mekanismoa finantzatzeari buruzkoak, aplikatzekoa den Europako eta Estatuko araudiarekin eta, bereziki, irailaren 29ko HFP/1030/2021 Agindua 9. artikuluaekin bat etorritik.

- Inbertsioek egiten dituzten jarduketan informazio- eta komunikazio-neurrietan (informazio kartelak, plakak, argitalpen inprimatuak eta elektronikoak, ikus entzunezko materiala, web orriak, iragarkiak eta prentsako tartekoak, ziurtagiriak, etab.), logotipo hauek sartu beharko dira:

1. Europar Batasunaren ikurra

2. Batasunaren ikurrekin batera, «Europar Batasunak finantzatua- Next Generation EU» testua jarriko da.

3.- Kontuan hartuko dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen 821/2014 Erregelamendu Betearazlearen II. eranskinean ezarritako arau grafiko eta kolore normalizatuak, programaren ekarpenak transferitzeko eta kudeatzeko modalitate zehatzei, finantza tresnei buruzko informazioaren aurkezpenari, eragiketen informazio- eta komunikazio-neurrien ezaugarri teknikoak eta datuak erregistratu eta biltegiratzeko sistemari dagokienez. Web orri hau ere kontsultatu daiteke: <http://publications.europa.eu/code/es/es-5000100.htm> eta ikurraren zenbait adibide deskargatu daitezke hemen: https://europa.eu/european-union/about-eu/symbols/flag_es#download.

- Edozein hedabidetan onartutako inbertsioei buruz egindako aipamen orok Ekonomia, Merkataritza eta Enpresa Ministerioa eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Saila finantzatu dituztela adierazi beharko du.

- Edozein hedabidetan onartutako inbertsioei buruz egindako aipamen orok Suspertze Planaren logoa erabili beharko du hedatzeko orduan, zeina esteka honetan baitago eskuragarri:

<http://planderecuperacion.gob.es/identidad-visual>

- Hala badagokio, informazio kartel eta plaka guztiak ondo ikusteko moduko leku batean jarri beharko dira, eta testuak Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon beharko du.

Seigarrena.- Giza baliabideak

Donostia Sustapena SA udal sozietate publikoak Donostiako aisialdi turistikoaren sektoreko enpresa proiektuak digitalizatzeko laguntzen deialdia kudeatzeko beharrezkoak diren giza baliabideak izango ditu.

Zazpigarrena.- Informazioa

Donostia Sustapena SA udal sozietate publikoak egindako kudeaketaren berri emango dio Donostiako Udalari hark eskatzen dionean eta, betiere, PRTR Planak ezarritako epeetan eta aurrekontu ekitaldia amaitzean.

Zortzigarrena.- Jarraipen Batzordea

Hitzarmen honetan aurreikusitakoa behar bezala betetzen dela eta haren jarraipena ondo egiten dela bermatzeko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da, zeinak 4 kide izango ditu, eta alderdi bakoitzetik bi. Udala izango da presidentea, eta idazkaria, berriz, Donostia Sustapena.

Gainera, alderdi bakoitzeko beste ordezkari batzuek laguntza eman ahalko diote Jarraipen Batzordeari teknikari edo aditu gisa, haien proposamenez, hitzarekin baina botorik gabe.

Batzordearen funtzionamendurako eta erabakiak hartzeko araubidea 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarenak bere Atariko Tituluaren II. kapituluko 3. atalean ezarritakora egokituko da.

Eginkizun hauek izango ditu Jarraipen Batzordeak:

- Laguntzak emateko eta justifikatzeko zereginen kudeaketa egokirako behar diren neurriak hartzeari buruz erabakitzea.
- Alderdiek beren gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak ez betetzeagatik eman daitekeen kalte ordaina zehazteko irizpideak ezartzea, dauden inguruabarrak kontuan hartuta.

Haren indarraldian interpretazioari eta betetzeari lotuta ager daitezkeen arazoak ebaztea.

Nolanahi ere, Jarraipen Batzorde honek ezin izango du parte hartu dirulaguntzak ematen dituen organoaren berezko eginkizunetan.

Bederatzigarrena. - Iraupena

Hitzarmen hau sinatzen den egunean sartuko da indarrean, eta 2025eko abenduaren 31ra arte egongo da indarrean. Aurrekoa gorabehera, proiektuaren indarraldia amaitu eta proiektua bukatu ez bada, hitzarmena automatikoki luzatuko da beste urtebetez, erabat amaitu arte, eta indarraldia ez da inola ere 2026ko abenduaren 31tik aurrera luzatuko.

Hamargarrena.- Aldatzea eta iraungitzea

Hitzarmen honen edukia aldatzeko, sinatzaileek aho batez hartu beharko dute erabakia, eta gehigarri bidez egingo da, aplikatzekoa den araudiaren arabera.

Hitzarmena haren xede diren jarduketak betetzen direnean edo urriaren 1eko 40/2015 Legearen 51.2 artikuluan iraungitzeko ezarritako arrazoiren bat dagoenean iraungiko da.

Gainera, iraungitzeko arrazoiak izango dira:

- Gauzatzea ezinezkoa izatea.
- Alderdietako batek erabaki arrazoitua hartzea. Erabaki hori idatziz jakinarazi beharko dio beste alderdiari, amaitzeko aurreikusitako eguna baino gutxienez hamar egun lehenago.
- Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan erakunde onuradun izateko aurreikusitako betekizunetako bat ez betetzea.

Betebeharrak eta konpromisoak betetzen ez badira, eta urriaren 1eko 40/2015 Legearen 49.e) artikuluari jarraikiz, alderdi bakoitzak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak bete ezean aplikatu beharreko ondorioak eta, hala badagokio, ez betetzeagatiko kalte ordain posiblea zehazteko irizpideak Jarraipen Batzordean zehaztuko dira, gertatutako inguruabarrak kontuan hartuta, eta, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37. artikuluan araututako kasuetan, dagozkion itzulketak egin ahal izango dira.

Hitzarmena aldeztu aurretik azkendu edo iraungitzeak ez du eraginik izango martxan dauden jardueretan, eta erakunde laguntzaileak nahitaez bete beharko ditu haren ondoriozko betebeharrak, salaketaren aurretik aurkeztutako eskaerei dagokienez.

Hamaikagarrena.- Datu pertsonalen babesa

Donostia Sustapena SAK, «Tratamenduaren eragilea» den aldetik, eskubidea izango du Donostiako Udalaren kontura laguntza hauen kudeaketarekin lotutako datu pertsonalak tratatzeko, tratamenduaren eragilearen Kontratuan ezarritako moduan eta baldintzetan. Bi alderdiek sinatu beharko dute kontratu hori, eta hitzarmen honi erantsiko zaio (II. eranskina).

Hamabigarrena.- Izaera juridikoa

Hitzarmen honek izaera administratiboa du, 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzkoak bere 16. artikuluan eta 40/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, bere 47. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena sor daitezkeen eta Jarraipen Batzordeak ebatzi ez dituen auziak epaitzeko.

Eta hitzarmen honen klausuletan jasotako zehaztapen guztiekin ados daudela adierazteko, bertaratuek bi aletan sinatu dute, goian adierazitako tokian eta egunean.

Donostiako Udalak

Sin.: Eneko Goia Laso
Donostiako Udaleko alkate-udalburua

Donostia Sustapena SA udal sozietate publikoak

Sin.: Iñigo Olaizola Arcaute
Donostia Sustapena Saren zuzendari kudeatzailea

I. ERANSKINA

DIRULAGUNTZETAN INTERES GATAZKARIK EZ EGOTEAREN DEKLARAZIOA
(ALKATEAK ETA SUSTAPENENKO GERENTEAK SINATU BEHAR DUTE)

II. ERANSKINA

TRATAMENDUAREN ERAGILEAREN KONTRATUA